

**“HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA:
deseskolatzea eta eskola-absentismoa erauzteko Bizkai Lurraldean”
egitasmoan AURREIKUSITA DAGOEN SEGIMENDUKO
BATZORDEAREN TXOSTENA**

IKASTURTEA: 2007-2008

**HEZKUNTZA SAILA (Bizkaiko Lurralde Saila)
FORU ALDUNDIA (Gizarte-Ekintza Saila)
EUDEL**

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1. SARRERA	3
2. PROGRAMAREN HELBURUAK	4
3. DATUAK JASOTZEA	5
3.1 Hitzen definizio operatiboa: absentismo, deseskolatzea, absentismo metatua eta absentismo zuzendua	5
3.2 Datuak jasotzeko ezarritako prozedura	6
4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DIMENTZIOA BIZKAI LURRALDEAN	7
4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH)	7
4.2 Haur Hezkuntza	10
4.3 Absentismoa eta deseskolatzea banatzea Ikuskaritzako eskualdeka	10
4.4 Ikastetxe kaltetuek	10
4.5 Datuen Eboluzioa	12
5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA	14
5.1 Ikastetxeetako zuzendaritzen ekarpenak	14
5.2 OGZen eta beste udal zerbitzu batzuen ekarpenak	17
5.3 Haur Zerbitzuaren ekarpenak (Bizkaiko Foru Aldundia)	19
6. ONDORIOAK-SINTESIA	22
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	27
8. ESKER ONAK	29
9. ERANSKINAK	31
9.1 – I. Eranskina: Ikastetxeetako zuzendaritzen, OGZen eta beste Udal eta Foru Aldundiko Zerbitzu batzuen ekarpenen orriak.	32

1. SARRERA

“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa erauztea Bizkai lurraldean” egitasmoan aurreikusita dagoen segimenduko Batzordeak landu zituen iragan hiru ikasturteetan dagozkien txostenak Programa horretan sartuta dauden hiru Erakundeen jokabideari buruz: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte-Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte). Txosten horren bidez jakin ahal izan da absentismo eta deseskolatzearen tamainua Oinarrizko Hezkuntzako ikasleetan (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) Bizkai Lurraldean, baita Haur Hezkuntzako etapakoetan (3-6 urte) ere. Bestalde, sartuta dauden lagunen iritzia ere jaso da, eta faktore hori gakoa da hobetzeko proposamenik egokienak ezartzeko xedez.

Segidan aurkezten den txostenak –laugarren urteari dagokio (2007-08 ikasturtea) Programa ezarri zenez geroztik– jakinarazi nahi du absentismo eta deseskolatzearen dimentsioa ez ezik eboluzioa ere, zeren eta aurreko ikasturteetan jasotako datuek balio baitute erreferente gisa konparaketak ezartzeko asmoz. Konparaketak horien ondorioz esan daiteke aurtean inoiz baino absentismoko kasu gehiago zuzendu direla eta agertzerik larrienak (absentismoak ikasturte osoan zehar iruan du edo parte luze batean) ere sekulan baino gutxiago izan direla. Halarik ere, aurreko ikasturteari dagokionez, absentismo edo deseskolatzeko jokaera daukaten ikasleen kopuru osoa areagotu egin da eta absentismo zuzenduko portzentajeak ez dira handiagoak. Datuok bultzatu egiten gaituzte azterketa egitera: ea areagotze hori datuen jasotze eskatzaileago batek eragin ote duenetz; izan ere, urte oroz hobetzen dira jasotze horren kontrolak. Edota esku-hartzeek –horiek ere gero eta egokituagoak premia bakoitzari– ez ote dutenetz lortzen arazo hori kentzea; horrela areagotzearen lekuko egiten dugu geure burua, eta, beraz baita beste alternatiba batzuen bilaketaren erantzule ere.

Horrek orok indarra ematen digu benetan lanari oso gogoz ekiteko arazo hori ezerezteko xedez. Bestalde, datuak jasotzeak –gero eta gehiago, gero eta zehatzagoak– lehenago bezala lagundu egingo digu arazoa hobeki fokalizatua edukitzen, eta horren ondorioz, hori gainditzeko esku-hartzean eraginkorrak izaten; izan ere, orain ere pentsatzen dugu ikastetxera sarri ez joateak zaitasun handia sortzen duela ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoan, eta geroan baztertzeta eta gizartetik kanporatzea eragiten duela.

Gainera, aurreko ikasturtean esaten genuenez, urteotan zehar bizitako esperientziak, praktika onen azterketak eta ikasketa konparatuek agertu egiten dute eskola absentismoa beste azaro batzuen “detektagailu” on bezala dabilela, hala nola tratu txarra, berdinaren arteko eraso, osasun arazoak... Horrek, litekeena bada, berretsi egiten du berehala jokatu beharra dagoela, arazoa aurkitu orduko.

Sartuta dauden lagunen iritzia –Programa bultzatu duten hiru Erakundeei dagozkie– ere jasotzen da txosten honetan. Aurten jokaera absentistaren zergatiak aztertzen dira talde batzuen balioespenaren arabera, hots: ikastetxeetako zuzendaritzak, oinarrizko gizarte-langileak eta udaleko beste talde batzuk, baita Foru Aldundiko zerbitzu espezializatuetakoko teknikariak ere. Irtzi hori oso argia da eta erabatekoa, agertzen baitu Bizkaiko Haur Hezkuntza (2. zikloa) eta Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen portaera absentistaren zergatirik garrantzitsuenak zerikusia daukala gurasoen

jokaerekin, baina, dena delarik, beste kausa bat ere ageri da DBHko etapako ikasleetan eragiten duena, honako hau: ikasleen motibazio urria irakaskuntza arloaren aurrean. Absentismoaren arazoa erazuten lagundu dezaketen osagaiei dagokienez, azpimarratu egiten da era koordinatu batean lanean jarraitu beharra hezkuntzarako eskubidea beramtze aldera, eta, horren ondorioz, saihestu erabili ez izanak eragin litzakeen desberdintasun egoerak. Helburu horri ere nahi zioten erantzun Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte-Ekintzako Ahalduak eta EUDELeke Gizarte-Kontuen arduradunak, 2003ko apirillean “*Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa eraztea Bizkai lurraldean*” egitasmoa aurkeztu zutenean, hiru Erakundeek euren gain hartuta.

Helburuak nola dabilzan aurrera egiaztatze aldera eta sartuta dauden Erakunde bakoitzari hobekuntzako urratsak eskaini ahal izateko gogoz, Programak berak aurreikusten du segimenduko Batzorde bat egotea. 2007-2008 ikasturteari dagokion txosten honek nahi du Batzorde horrek bere gain hartu dituen eginkizunak betearazi.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Hona hemen programa hori martxan jarrita lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatze aldiaren dauden adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, deseskolatzea eta eskola absentismoa saihestuz.
- Gizarte toki baztertuetatik datozen familien portaera sustatzea hiru eta sei urte bitarteko adingabeak eskolatzeko.
- Familia horien eskariak lehenetsi eta saritzea hiru urtetik beharako seme-alabak Haur Eskoletan sartzeko xede dutenean.
- Kontu horren larritasuna sentsibilizatzea sartuta dauden profesionalei, gizarteari oro har eta zeregin horretan diharduten lagun guztiei.
- Sartuta dauden erakundeek koordinaturik lan egitea (Justiziako Saila, Emplegua eta Gizarte-segurantza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Udalak; Foru Aldundia eta Fiskaltza) prebentziorako eta deseskolatze eta eskola absentismoaren aurka esku hartzeko.
- Deseskolatze eta eskola absentismoaren ebaluatzea, baita martxan jarriko diren esku-hartzeak ere.

Txosten honetako atalek erantzuna eman nahi diete helburu formulatuei, baina bereziki azpimarratzen da problemaren hedadura susatzea; izan ere, zenbat eta hobeki jakin, orduan eta egoera hobean egongo gara esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezten eta, azken finean, konpontze aldera.

3. DATUAK JASOTZEA

3.1. Hitzen definizio operatiboa: absentismo, deseskolatzea, absentismo

metatua eta absentismo zuzendua

Ekartzen diren datuak interpretatzeko txosten honetan jasotzen da deseskolatze, eskola absentismo, absentsimo metatu eta absentismo zuzendu hitzen definizio operatiboa:

- **Deseskolatzea:** derrigorrezko eskolatzeko adineko adingabeen (6-16 urte) egoera da, Ikastetxean matrikulatu gabe daudelarik. Kontzeptu horretan ere sartuta dago adingabeen egoera justifikatu gabeko hutsegiteen %100 daudenean matrikulatuta egonagatik ere.
- **Eskola Absentismo:** Eskola absentismotzat jotzen da Ikastetxera era jarraituan ez joatea justifikatu dezakeen batere ziorik gabe, onartuta edo biltzatuta familiaren beraren aldetik edo ikaslearen beraren gustura, aurrenerabe eta nerabeen kasuan. Kontzeptu honen definizio operatiboan absentismoko tasa jotzen da justifikatu gabeko hutsegitearen portzentajetzat hilabeteko denboraldian. Txosten honetan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiagotzat jotzen da. Absentismo kontzeptua aplikatuko da, prebenitzeko gogo batekin eta serberdintasunen konpentsatzailea Haur Hezkuntzako 2. zikloko adinetik aurrera.
- **Absentismo metatua:** tarteka jasotzen da absentismo metatuaren portzentajea ikasle absentisten artean ikasturtean zehar. Hona hemen tarteen esangura:
 - %25: joan gabeko egunen %25eraino ikasturtean.
 - >%25-%50: joan gabeko egunen %25 baino gehiagotik %50era ikasturtean.
 - >%50-%75: joan gabeko egunen %50 baino gehiagotik %75era ikasturtean..
 - >75%: joan gabeko egunen %75 baino gehiagotik %99ra ikasturtean. (hutegiteen %100 eta deseskolatzea baliokide dira).
- **Absentismo zuzendua:** absentista izan ondoren absentismoko erregistririk ez izatera pasatu diren ikasleen kopuru eta portzentajea jasotzen dira 2008ko apiril, maiatz eta ekianean gutxienez.

3.2. Datuak jasotzeko segitu den prozedura

Programan ezarritako protokoloa segitu da. Hau da, hilero bost eguna baino lehenago Ikastetxeek igorri dituzte Hezkuntza Ikuskaritzara eta Udaletxeetara dagozkien erregistroko orriak ikasleen izenekin beteta, gorago azalduta dauden hitzen definizio operatiboaren arabera hilero justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago dute. Gainera, ikasturteon hiruhileko bakoitza amaitzean, Ikastetxe guztiek (hileko absentismoko erregistririk izan duten ala ez berdina da) Hezkuntza

Ikuskaritza honetara igorri behar izan dute fitxa-sintesi bat, non aztertzen baitzen ikasleen absentisten egoera, eta horrek hobetu egin du datuak jaso izanaren kontrola.

Erregistroak jaso ondoren, Ikastetxeko Ikuskariak aztertuko ditu eta aplikazio informatikoan sartuko horretarako landu denez. Aplikazio horren diseinuari esker aukera eman zaigu Ikastetxe eta ikasleen kopurua jakiteko 2007-2008 ikasturtean zehar absentismo eta/edo deseskolatzeko erregistroren bat izan dutenena.

Azkenik, parte-hartzaileen iritzia ere jaso da (Ikastetxeetako zuzendaritzak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak edo beste Udal Zerbitzu batzuk; eta Haurtzaro eta Nerabegaroko Zerbitzu espezialatuak Bizkaiko Foru Aldundikoak). 1. Eranskinean batzen dira iritzi datuok jasotzeko balio izan duten dokumentuak.

4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DIMENTZIOA BIZKAI LURRALDEAN

4.1. OINARRIZKO HEZKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH)

4.1.1. Ikasleen kopuru osoa portaera absentista edo deseskolatuarekin:

Absentismo kasuak gehi deseskolatzekoak, 1.405 da kopurua orotara.

Kopuru horrek suposatzen du oinarrizko irakaskuntzako ikasleen %1,5. Aurreko ikasturteari dagokionez, absentismo edo deseskolatzeko portaera duten ikasleen kopurua areagotu egin da 299. Hala eta guztiz ere, azterketa zehatzago batek adierazten digute areagotzea ikasle absentistetan dela, ez deseskolatuetan; izan ere, azken egoera hori gutxiagotu egin da iragan ikasturtearen aldean. Gainera, geroago txosten honen 26. orrialdean ikusiko denez, ikasturte honetan ere jarraitzen du absentismorik larriena gutxiagotzeko joerak (ikasturte osoan zehar edo parte handian dirauena) Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Baina, aipatutako areagotzeak, txosten honetako “Sarrera”n adierazten zenez, bultzatzen gaitu aztertzeraz ea den datuak era eskatzaileagoan jaso izanagatik; izan ere, urtero hobetu egiten da jasotze era hori. Edo esku-hartzeek –horiek ere gero eta egokituagoak portaera absentista eragiten diren zergatiak– ez ote duten lortzen kentzea arazo hori, eta orduan behartu egiten gaitu, hortaz, beste alternatiba batzuk bilatzera.

4.1.2. Ikasleen kopuru osoa portaera absentistarekin:

Orotara 1.370 ikaslek izan dute portaera absentista. Titulartasun eta dauden hezkuntza zikloaren arabera, honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
26.302	580	2,2	15.920	537	3,4	28.956	91	0,3	20.071	162	0,8

Aurreko ikasturteetan bezala, portaera absentista daukaten ikasleen portzentajea handiagoa da argi eta garbi DBH etapan Lehen Hezkuntzan baino. Halaber, Ikastetxe publikoei dagozkien portzentajeak askoz handiagoak dira oraindik ere itunpeko Ikastetxe pribatuetoakoak baino, eta zioei buruz azalpena egiten da txosten honen 26. orrialdean.

4.1.3. Ikasle deseskolatuaren kopurua

Honela banatzen dira deseskolatzeko egoeran dauden 35 ikasleak (32 gutxiago aurreko ikasturtean baino, eta beraz %48 urritu da):

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasleak	Deseskola..	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%
26.302	8	0,03	15.920	18	0,1	28.956	2	0,007	20.071	7	0,03

Koadrootako datuek adierazten dute argi eta garbi portzentajeko desberdintasun bera hezkuntza etapa bien artean eta aurreko atalean aipatu diren Ikastetxe batzuen eta besteen artean.

4.1.4. Ikasleen kopuru osoa portaera absentista edo deseskolatuarekin

LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absent. eta desesk.	%	Ikasleak	Absent. eta desesk	%
55.258	681	1,2	35.991	724	2,01

4.1.5. Absentismo metatua. Hutsegiteen portzentajea ikasturtean zehar

4.1.5.1. Ikaske absentistak Ikastetxe Publikoetan

LEHENA								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
580	466	80,4	85	14,6	20	3,5	9	1,5

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten portzentajerik handiena Ikastetxe publikoetan (%80,4) %25erainoko tartean kokatzen da.

>%75 tarteko absentisten kopuruari (9) deseskolatuak gehituz gero, (8), egoera hauetako portzentajea –problema honen agerpenik larrienak dira– %2,9ra igoko litzateke.

DBH								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
537	355	66,1	99	18,4	48	9	35	6,5

DBHn, nahiz eta absentismoaren portzentajerik handiena ere (%66,1) tartean %25eraino heltzen den, halarik ere, hori jaitsi egiten da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Horrela, absentismorik larrieneko tartetean DBHn portzentaje askoz altuagoak aurkitzen dira, eta >%75 tartearen kasuan %6,5era igotzen dira.

Lehenago bezala, azken tarteko absentisten kopuruari (35) deseskolatuak gehituz gero, (18), egoera hauetako portzentajea %9,5era igoko litzateke.

4.1.5.2. Ikasle absentistak Ikastetxe Pribatu Itunduetak

LEHENA								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
91	77	84,6	12	13,2	1	1,1	1	1,1

Gauza bera gertatzen da Ikastetxe Publikoetan. Ikasle absentisten portzentajerik handiena (%84,6) lehen tartean kokatzen da, hots, euren absentismo metatua ikasturtean zehar hutsegiteen %25eraino izan da.

Era berean >%75 tarteko (1) absentisten kopuruari deseskolatuak (2) metatuko

baldin bagenizkio, egoera bi horien portzentajea %3,2ra igoko litzateke.

DBH								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
162	97	59,9	37	22,8	11	6,8	17	10,5

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn ere agertzen du kontzentrazio txikiagoa absentismo banantzeak %25eko mailan, eta haziera %10,5eraino izango da absentismo mailarik larrienean.

Azken tarteko 17 absentistek deseskolatuak (7) eranstean, bien batuketaren portzentajea %14,2 izango litzateke.

4.1.6. Absentismo zuzendua

IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK			
LEHENA		DBH		LEHENA		DBH	
Absentisten kop: 388		Absentisten kop: 446		Absentisten kop: 77		Absentisten kop: 128	
Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%
273	47,1	258	48	44	48,4	63	39

Aurreko koadroko datuek izateari uzten dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilekoan ez diren ikasle absentisten kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo horren zuzenketaren zioak: Erakundeen esku-hartzeak arazo hori gairiditzeko xedez, edota portaera absentista eragin bide duen erroeraren arabera zirkunstantzia desagertzea; izan ere, absentismoaren definizio operatiboaren barruan sartzen baitira hainbat zioengatik egunen %20an justifikatu gabe huts egiten dutenak, hilabetean bakarrik izan den arren.

Datu hauen bidez ikus dezakegu arazoaren dimentsiorik larriena, hots, ikasturtean zehar portaera absentistari sendo eusten diotenena esku-hartze guztiak gorabehera. Kopuru hori ateratze aldera, guztizkoei aurreko koadroko datuak kentzen zaizkiei, baita txosten honetako 2.1.2 atalean daudenei ere, eta Lehen Hezkuntzako 354 ikaslera heltzen da (%0,6) eta DBHko 378 ikaslera (%1,05).

4.1.7. Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua.

	Bideratutako espedieen kop.	% (1)	% (2)
Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuak	732	42,9	0,6
Foru Aldundia	13	0,8	0,01
Fiskaltza	41	2,9	0,04

(1) % absentismo eta/edo deseskolatzeko kasu guztien gainean. Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

(2) % derrigorrezko irakaskuntza eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztien gainean Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

Hartara, 41 kasu dira Ministerio Fiskalera bideratutakoak, eta erakunde horrek esku-hartzeko protokolo bera segitu du: familia eta seme-alaba absentista edo deseskolatuari hitzordua ematea, hiru hilabete segimendua gauzatzea eboluzioa balioesteko, Ikastetxeak ekarritako informazioa kontuan edukirik. Hiruhileko segimendu horri eusten zaio arazoak dirauen bitartean, derrigorrezko eskolatzeari amaitu arte, eta horrela gertatuz gero, ekin behar zaio salaketa egiteari gurasoen aurka, familian seme-alabak bertan behera uzten dituztelakoan daudenean. Halako salaketa bost familiaren aurka egin da ikasturte honetan.

Ikasturteon Fiskaltzara bideratutako 41 kasu huez gain, Fiskaltzak aurreko ikasturteetan bideratu zituzten beste 33ren segimenduari ere eusten die.

4.2. HAUR HEZKUNTZA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
14.675	270	1,8	15.605	30	0,2

Haur Hezkuntzako 2. zikloari dagozkion datuak eskaintzen dira, derrigorrezko mailakoa izan ez arren, hasiera-hasieratik eskolatzeko adorea sartzeko xedez bakarrik, gizartean baztertuak dauden herriguneeen kasuetan batez ere.

4.3. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEA BANATZEA IKUSKARITZAKO ESKUALDEKA

Guztira	Eskualdeak			
	1	2	3	4
121.529 (1)	22.738 (%18,7)	29.247 (%24,1)	40.598 (%33,4)	28.946 (%23,8)
1.705 (2)	44 (%2,6)	53 (%3,1)	1.017 (59,6%)	591 (34,7%)
Absentismoko indizea	(%0,2)	(%0,2)	(%2,5)	(%2,04)

(1) *Guztizko horretan Bizkaia lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta bigarren zikloko Haur Hezkuntzako ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori Ikuskaritzako lau*

eskualdeetan banatzen da taulak adierazten duen bezala. 1. eskualdea: Durangaldea, Lea-Artibai eta Busturialdea. 2. eskualdea: Uribe. 3. eskualdea: Bilbo eta Nerbioi Garaia. 4. eskualdea: Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.

- (2) *Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasleen guztizkoa Oinarritzko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Bizkaiko Haur Hezkuntzan.*

Ikus daitekeenez, banatze hori eskualdeka eginda ez da berdintsua, baizik eta 3 eta 4. eskualdeetan batez ere.

4.4. IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
252	121	48,02	137	44	32,1

Portaera absentista eta/edo deseskolatuekin 6 ikasle edo gehiago dituzten ikastetxeak

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
252	50	19,8	137	14	10,2

Bigarren koadro honetako kopuru eta portzentajeek eskola absentismoko arazoan kaltea duten Ikastetxeen irudi errealistagoa eskaintzen dutelakoan gaude; izan ere, lehenengo koadroan islatzen dira erregistroren bat izan duten Ikastetxe guztiak, ikasle bati dagokion erregistro bakar bat izanagatik ere.

4.5. DATUEN EBOLUZIOA AZKEN URTEETAN

IKASTURTEAK	ABSENT+DESESK OIN. HEZ.	ABSENTISMO HAUR HEZ..	IKAST. KALTETUAK > 6 kasu		FISKALTZARA BIDERATUAK
			PUBLIKOAK	PRIBATU ITUN.	
2003-2004	1.074 (%1,2)	201 (%0,76)	38 (%15,1)	6 (%4,4)	8 (%0,63)
2004-2005	1.133 (%1,3)	197 (%0,72)	39 (%15,5)	5 (%3,6)	28 (%2,5)
2005-2006	1.106 (%1,2)	239 (%0,82)	44 (%17,5)	9 (%6,6)	30 (%2,6)
2006-2007	1.106 (%1,2)	239 (%0,82)	44 (%17,5)	9 (%6,6)	30 (%2,6)
2007-2008	1.405 (%1,5)	300 (%0,99)	50 (%19,8)	14 (%10,2)	41 (%2,9)

Aurreko taulak argi eskaintzen digu datuen eboluzioa segimendu horretan jardun izan duten bost ikasturteetan zehar. Harrigarria izan liteke datuak larriagotu izana iruditzea absentismoaren segimenduko asmo hau aurrera doan neurrian, baina zerean datza azalpena nonbait: kontrolgailua ere hobetu egin da apurka-apurka. Lortu egin da ikasturteon ia ikastetxe guztiek betetzea hiruhileko fitxa-sintesia, eta horri esker sakonago dakigu arazoaren errealitatea; horrela absentismo eta deseskolatze kasuak areagotu egin dira, antza denez.

Absentismo zuzenduari dagokiolarik, esan behar da hurrengo taula horrek eboluzio osoa jasotzen duela 2004-2005 ikasturteaz geroztik; izan ere, datu hori ez zen jaso 2003-2004 ikasturtean, hain zuzen.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHENA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua	LEHENA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua
2004-2005	%42	%49	%57	%44
2005-2006	%42,4	%44	%52,5	%34,6
2006-2007	%63,4	%55,1	%67,5	%59,4
2007-2008	%47,1	%48	%48,4	%39

Taula horretan ikus daitekeenez, ikasturteon berriro zuzendu diren kasuen portzentajea aurrekoan baino gutxiago da. Aipatu ikasturtea bazter utzita –bertako datuak baztertu egin ziren alderdi horretan era harrigarrian sailaren eboluziotik–, 2007-2008 ikasturtekoak egokitu egiten zaizkio berari eta horrek esan nahi du oro har hobekuntza absentismoa zuzentzeko orduan.

Jarraian azken tartean metatutako absentismoaren eboluzioa jasotzen da (Ikastetxera ikasturteko lanegunen %75ean joaten ez diren ikasle absentisten portzentajea jasotzen du, deseskolatuekin batera), informazio hau jaso den hiru ikasturteetan zehar.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHENA Absentismoa %75etik %100era	DBH Absentismoa %75etik %100era	LEHENA Absentismoa %75etik %100era	DBH Absentismoa %75etik %100era
2004-2005	%6,5	%17,1	%6,8	%24,6
2005-2006	%6,6	%19	%15,6	%15,5
2006-2007	%4,9	%10,5	%1,3	%5,9
2007-2008	%2,9	%9,5	%3,2	%14,2

Aurreko taulak jakinarazten du arazoaren dimentsiorik larrienak (ikasturte osoan zehar praktikoki dirauenean) jarraitzen duela gutxiagotzeko joera Lehen Hezkuntzako etapan, DBHn, Ikastetxe publikoetan. Halarik ere. Ez da gertatu gutxiagotze hori Itunpeko Ikastetxe pribatueta.

Hala eta guztiz ere, datuok adierazten digute, aurreko ikasturteetan bezala, arazo horren dimentsioa, txikia hezkuntza sistemako ikuspuntutik, ez dela banakotik, zeren eta eskola porrota eragiten duen egoera hori baita lagun horien geroko bazterketa sozialaren zioetarikoa. Aurrekoa J. Delorsek (1996) zuzentzen zuen Nazioarteko Batzordeak XXI. menderako hezkuntzari buruz UNESCOri egindako Txostenean islatzen da:

“Muchos países, sobre todo entre los países desarrollados, padecen en la actualidad un fenómeno muy desconcertante para las políticas educativas: paradójicamente la prolongación de la escolaridad ha agravado más que mejorado la situación de los jóvenes socialmente más desfavorecidos o en situación de fracaso escolar. Incluso en los países en los que los gastos de educación figuran entre los más elevados del mundo, el fracaso y la deserción escolares afectan a una proporción considerable de alumnos. Producen una división entre dos categorías de jóvenes, que resulta tanto más grave cuanto que persiste en el mundo laboral. (...) Generador de exclusión, el fracaso escolar es en muchos casos el origen de algunas formas de violencia o de extravíos individuales. Estos procesos que desgarran el tejido social hacen que se denuncie a la escuela como factor de exclusión social y al mismo tiempo que se la solicite con insistencia como institución clave de integración o reintegración. Los problemas que plantean a las políticas educativas son especialmente difíciles; la lucha contra el fracaso escolar debe ser, por tanto, un imperativo social” (p. 61).

Gainera hainbat ikerketatan jasotzen da arazo hau; izan ere, deseskolatzearen ondorioak gaur egun serioagoak dira erabilera beteko denboraldian baino. M. Esterle Hedibelen (2005) “Prevención y tratamiento del absentismo y de la desescolarización en Francia: experiencias y nuevas formas de actuar” artikuluan baieztatzen denez, “*el nivel de formación requerido para ocupar un empleo se ha elevado hoy, y las perspectivas socio-profesionales de los alumnos que dejan el sistema escolar sin título y/o antes de los 16 años se han reducido considerablemente*”.

Azkenik, profesionalen ahalegin guztiak arazo hori kentze aldera, edo gutxienez hezkuntzako esku-hartzea hobetzeko ikasle absentistekin ulertu behar lirateke Fullan-ek (2007) erabilitako zentzuan, hezkuntza sistemaren hobekuntzak zera esan nahi duela azaltzen duenean: “*actuar eficazmente para reducir las distancias en el aprendizaje entre los/as alumnos/as con éxito y los/as alumnos/as con fracaso escolar*”. Hobekuntza iritzi horrek konnotazio batzuk ditu, sakon utopiko eta batik bat etikoak direnak.

5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA

5.1. IKASTETXEETAKO ZUZENDARITZEN EKARPENAK: : JOKAERA ABSENTISTAREN ZIOAK

Ikuskaritzako Lurralde Burutzatik maiatzean gutun bat bidali zieten absentismoko erregistroren bat izana zuten 116 Ikastetxeetako zuzendaritzeari, eta eskutitz horretan eskatzen zitzairen I. A Eranskinetako ekarpeneko orria betetzeko, non eskatzen baitziren ikasleen jokaera absentistaren zioak Jarraian jasotzen dira erantzun zuten 108 Ikastetxeek emandako iritziak (%65,5):

	Ikastetxe kaltetuen ko.	Erantzun duten ik. kop.	%
BIZKAIA	165	108	65,5

5.1.1 Jokaera absentistaren zio nagusiak eragin handiagoagatik ordenatuak ikastetxeen iritziaren arabera

Hurrengo taulan ordenaturik daude ikasleen jokaera absentistaren zioak eragineko portzentajea handiagoagatik galde-sortari erantzun dioten Ikastetxeetan. “Ikastetxeen kop.” zutabearen jasotzen da zenbatek balioetsi duten “Zioa” izenburupean agertzen diren enuntziatu batzuek edo bestek azaltzen dutela ikasleen jokaera absentista. Eskuineko zutabearen jasotzen da zenbat Ikastetxek balioetsi duten aipatu zioak eragiten zuela ikasle absentisten erdiei baino gehiagori (2 puntuazioa) eta/edo guztiei (3 puntuazioa).

ZIOA	Ikastetxeen kop.	Ikasleen kopuru handi bati eragiten dio
1. Familiak gehiegi babesten ditu seme-alabak (gaixotasun edo molestiak justifikatzen ditu zio argirik gabe eta txosten medikorik gabe...)	93 (%86)	54 (%58)
2. Familiak ez dauka ezarrita funtzionamenduko oinarritzko arau eta ohiturak.	90 (%83)	63 (%70)
3. Ikasleak motibazio urria dauka ikasketa eta/edo gauza akademikoak direla eta.	76 (%70)	57 (%75)
4. Familiak ez dauka hezkuntza onuratzat seme-alabentzat.	72 (%67)	51 (%71)
5. Familiak loturik bizi da zenbait ohiturari, eta horiek oztzatzen dute Ikastetxera joatea (egun batzuetako ospakizunak, nebarreba txikiak zaintzea...)	54 (%50)	31 (%57)
6. Familiak ezintasuna agertzen du seme-alaben jokaera absentista bideratzeko	52 (%48)	28 (%54)
7. Aurreko prestakuntza akademiko txarra eta/edo ikaslearen oraingo emaitza akademiko txarrak	45 (%42)	33 (%73)
8. Ikastetxeak ez dauka behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko	33 (%30)	17 (%51)
9. Familia lan dela eta lekualdatzen da (mahats-bilketa, azokak...)	24 (%22)	7 (%30)
10. Zailtasunak ikastetxean ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitze (Zailtasunak irakaskuntza banan-banan egiteko)	22 (%20)	6 (%27)
11. Ikaslearen berdinen taldearen arau eta balioek absentismora daramate arrastaka.	14 (%13)	4 (%29)
12. Familiak “beste aukera bat” azaltzen du seme-alabak hezteko eskolakerakundetik kanpo	11 (%10)	3 (%27)

Taula hau irakurtzetik atera daiteke Bizkaiko Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen jokaera absentistaren ziorik garrantzitsuenak zerikusia daukala gurasoen portaerekin

familiak seme-alabak gehiegi babesten dituztelako, edo portaerako egiturazko pautarik ez dagoelako seme-alabak ongi garatu eta hezten laguntzeko, edo hezkuntza aintzat hartzen ez dutelako onura gisa edo baita loturik bizitzeagatik ere zenbait ohiturari, seme-alabak eskola-erakundera normalean joatea eragozten dutenei, hain zuzen. Garrantzitsua ere bada balioestea nola agertzen diren famili esparruan zailtasun batzuk agintea erabiltzeko seme-alaben hezkuntzan. Bestalde, hona hemen beste zio garrantzitsu bat: ere: ikasleetan dagoen motibazio urria gauza akademikoen aurrean. Horri buruz, hala ere, baieztatu dezakegu galde-sorten azterketaren bidez DBHko etapako ikasleei dagokiela. Azkenik, azpimarratu beharra dago ikastetxe gutxik balioesten dutela jokaera absentistaren zioak zerikusiren bat daukala zailtasunekin ikasleen ezaugarriak egokitzeko.

5.1.2. Iritzi eta iradokizunak zuzendaritza taldeen galde-sortetan jasoak

I Eranskinean jaso den ekarpen orriak ere badauka parte ireki bat, eta bertan iritzi eta iradokizunak eskatzen zaizkie zuzendaritza taldeei eskola absentismoko arazoari buruz derrigorrezko hezkuntza etapan. Jarraian laburtu egiten dira halako iritziak:

- Gizarte Ongizateko Zerbitzuek familiekin esku hartzen dutenean, nabaritu egiten da euren eragina, eta horren haritik ikusten da garrantzitsua dela esku-hartze hori absentismoko kasuak bideratze aldera.
- Normalean ikasle absentistak giro zaila dauka etxean. Ez dute jasotzen batere laguntza edo bizigarrikeria eskolako lanean jarduteko.
- Kasu batean agertzen da ikasle absentista “ezkonduta dagoela”.
- Batzuek deritzote absentismo kontuan lan egiten duten hainbat elkarterek ez dutela laguntzen era positiboan konponbide bat lortzen. Horrez gain, uste dute arindu behar liratekeela izapideak eta prozesua laburtu, hezkuntzarako eskubidea bermatzeko.
- Ezinbestekoa da lana familia esparruan. Gainera, balioesten da alderdi hori serioztat jo ezean, gainerako ekintzak egongo direla gaitzetsiak porrotera. Lerro berean, eskakizuna eskatzen zaie Administrazioaren aldetik guraso eta tutoreei eginbeharrak betetzeko seme-alabak eskolatzeari dagokionez; izan ere, eurak dira erantzuleak seme-alabak Ikastetxean sartze aldera.
- Erakundeek, Udalek, Hezkuntza Ordezkaritzak izapideak egiteari ekin diezaiotela eskatzen da, eta neurri egokiak hartu ditzatela absentismoa kentzeko xedez, hileroko parteaz arazoaren berri jaso orduko; izan ere, aipatu Erakundeek bideak dituzte eta ez liekete utzi behar Ikastetxeen protokoloa hasten familien aurka ez jartzeko eta kasu askotan egoera desatsegin eta arriskugarriak ez bizitzeko.
- Oso garrantzitsutzat jotzen da 3-6 eta 16-18 urteko tartetan lan egitea. Lehen kasuan familia eta ikasleetan ohiturak sortzeko garrantziagatik eta bigarrean adin horietan laguntza eta orientazio handia behar izateagatik.
- Absentismoa kentzea gakotzat jotzen da ikasleak eskola arrakastara iritsi ahal izan daitezen. Bizitako esperientzia dela eta, adierazten da ikastetxeek bakarrik ez daukatela aukerarik, eta asko azpimarratuagatik ere, familiekin egiten den lanak gaingitu egiten dituela Ikastetxeen aukerak. Lan koordinatua behar da Erakunde eta Hezkuntzaren artean. Galdetzen dute

ea Hezkuntzak ezin proposatu lezakeenetz lagun bat lan hori bere gain hartuko lukeena.

- Aurreko ekarpen lerroan behin eta berriz aitortzen da jokaera absentistak Haur Hezkuntzan hasten direla eta larriagotzen Lehen Hezkuntzako mailek aurrera egin ahala. Bestalde, agertzen da absentismoa nabaria dela batik bat talde ijitoei dagozkien ikasleetan eta ikastetxeetatik arazoa bideratze aldera egiten diren ahaleginak urriak direla oso: ez da lortzen aldatzerik talde horrek duen ikuspuntua ikastetxean normalean joan beharrari dagokionez. Balioetsi egiten da batzuetan ikastetxez kanpoko lagunek esku hartzea eraginkorra izan daitekeela, eta hortaz aukera dago lagun hori ezartzeko ikastetxean. Gainera, absentismoak B eta D hizkuntza ereduetan arras eragozten du bigarren hizkuntza ongi ikastea, eta egoera horrek larriagotu egiten du eskola porrota, hots, aldi berean absentismoa bultzatzen duena.
- Azkenik, zera ere adierazten da: ikasle absentistek arras atzeratzen dute ikasgelen martxa ona, zeren huts eginda ez baitute behar bezala segitzen, aspertu egiten eta besteen aprobetxamendua oztopatzen. Udalerriko ertzain eta gizarte-langileei eskatzen zaie euren gain hartzeko egunero Ikastetxera joatea.

5.2. OGZ-EN ETA BESTE UDAL ZERBITZU BATZUEN EKARPENAK: JOKAERA ABSENTISTAREN ZIOAK

EUDELetik igorri zieten gizarte-zerbutzuei eta udal hezkuntza zerbitzuei I. Eranskinean jasotzen den ekarpen-orria. 63 udaletako zeritzuen bidez bete da, eta horiek bizkaitarren %85,27 dira. Segidan azaltzen dira adierazitako iritziak.

5.2.1. Jokaera absentistaren zio nagusiak eragin handiagoagatik ordenatuak Udal Zerbitzuen iritziaren arabera.

Hurrengo taulan ordenaturik daude ikasleen jokaera absentistaren zioak eragineko portzentajea handiagoagatik galde-sortari erantzun dioten udalerrietan. “Udal Zerbitzuen kop.” zutabea jasotzen da zenbatek balioetsi duten “Zioa” izenburupean agertzen diren enuntziatu batzuek edo bestek azaltzen dutela ikasleen jokaera absentista udalerrian. Eskuineko zutabea jasotzen da berriro zenbat Udal Zerbitzuek balioetsi duten aipatu zioak eragiten zela ikasle absentisten erdiei baino gehiagori (2 puntuazioa) eta/edo guztiei (3 puntuazioa).

ZIOA	Udal Zerbitzuen Kop.	Ikasleen kopuru handi bati eragiten dio
1. Familiak gehiegi babesten ditu seme-alabak (gaixotasun edo molestiak justifikatzen ditu zio argirik gabe eta txosten medikorik gabe...)	63 (%100)	61 (%96)
2. Familiak ez dauzka ezarrita funtzionamenduko oinarritzko arau eta ohiturak.	63 (%100)	30 (%48)
3. Ikasleak motibazio urria dauka ikasketa eta/edo gauza akademikoak direla eta.	61 (%99)	19 (%30)
4. Familiak ez dauka hezkuntza onuratzat seme-alabentzat.	61 (%99)	62 (%85)

5. Familiak loturik bizi da zenbait ohiturari, eta horiexek oztopatzen dute Ikastetxera joatea (egun batzuetako ospakizunak, nebarreba txikiak zaintzea...)	58 (%93)	2 (%4)
6. Familiak ezintasuna agertzen du seme-alaben jokaera absentista bideratzeko	56 (%89)	26 (%46)
7. Aurreko prestakuntza akademiko txarra eta/edo ikaslearen oraingo emaitza akademiko txarrak	56 (%89)	16 (%29)
8. Ikastetxeak ez dauka behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko	54 (%86)	16 (%30)
9. Familia lan dela-eta lekualdatzen da (mahats-bilketa, azokak...)	54 (%86)	28 (%52)
10. Zailtasunak ikastetxean ikasle bakoitzaren ezaugarriari egokitzeko (Zailtasunak irakaskuntza banan-banan egiteko)	54 (%86)	14 (%26)
11. Ikaslearen berdinen taldearen arau eta balioek absentismora daramate arrastaka.	54 (%86)	2 (%4)
12. Familiak “beste aukera bat” azaltzen du seme-alabak hezteko eskola-erakundetik kanpo	54 (%86)	21 (%39)

Taula irakurtzetik atera dauteke Bizkaiko Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen jokaera absentistaren zirorik garrantzitsuenak zerikusia daukala gurasoen portaerekin, bai familiek seme-alabak gehiegi babesten dituztelako, edo seme-alabak eskola-erakundera normalean joatea eragozten duten ohiturei loturik bizitzeagatik, edo ez dutelako jotzen hezkuntza eurentzako onuratzat. Halaber ziotzat ere hartzen da familiak lekualdatzea lanagatik (mahats-bilketa, azokak...). Bestalde, badago beste zio garrantzitsu bat ikasle absentisten erdiei baino gehiagori eragiten diena: motibazio urria ikasketarako eta gauza akademikoetarako. Azkenik, azpimarratu behar da udal zerbitzuek balioesten dutela neurria handiagoan ikastetxeek baino, jokaera absentistaren zioak zerikusia daukala ikastetxeak ez edukitzearekin behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko.

5.2.2. Iritzi eta iradokizunak Udal Zerbitzuen galde-sortetan jasoak

I Eranskinean jaso den ekarpen orriak ere badauka parte ireki bat, eta bertan iritzi eta iradokizunak eskatzen zaizkie zuzendaritza taldeei eskola absentismoko arazoari buruz derrigorrezko hezkuntza etapan. Jarraian laburtu egiten dira halako iritziak:

- Absentismoa ohiko gauza duen familia batekoa izateak eragiten du pasibitatea familietan, eta ez dira batere sartzen eskola ekintzan, “premiazkoa” ez ikusta.
- Adingabe absentistak, batez ere, dagozkie gutxiengo etnikoei. Ikastetxeek zailtasun handiak dituzte jokaera aldatze aldera, nahiz eta lankidetzara eduki Oinarrizko Gizarte Zerbitzu, Gizarte- eta Hezkuntza-Esku-Hartzeko Talde eta elkarteekin eurekin, hala balegokio.
- Ez dagozkie adingabe absentista guztiak gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten familiei eta deitza ikastetxeko eskaria jaso ondoren absentismoa dela eta, arras baldintzatzen du gaitasuna ezartzeko harreman bat laguntzeko eta gainera errezelo sendoak sortzen ditu familietan.
- Zaila da jokaera absentista bat bideratzea derrigorrezko eskolatzearen amaieratik hurbil dauden adingabeen kasuetan, zeren eta esku-hartzea egingo baita egoera kronifikatu baten gainean (beranduago jokatu eta zailagoa izango da egoera normal bihurtzea).

- Beste gabezia batzuk ere topatzen dira familia, pertsona eta gizarte mailan, 2007/08 ikasturtean zehar heldu diren kasuetan
- Garrantzitsua da ikustea nola urteekin eboluzionatu diren era negatiboan (gero eta eraso gehiago daude nerabe taldeen artean, irakasle, guraso edo lagunenganantz...). Hausnarrean jardun beharra dago akatsak zertan dautzan jakiteko hezkuntza eta familia mailan, nerabeen halako portaera eta jokaera erasotzaileak aldatzeko xedez; izan ere, jarrerok era negatiboan eragingo diote euren geroari, baita inguratzen dituzten lagunak etorkizunari ere, eta balio eskala bat berriro ere edukitzeko: horietan lehentasuna izan beharko du beste lagun guztiei zor zaien begirune zintzoak.
- Absentismoak arriskuko beste portaera mota batekin loturik ez dagoenean, OGZen lanak galtzen du eraginkortasuna, familiarekin hitzordu hutsa bihurtuta, eta horrek ez du batere segurtatzen jokaera aldaketa.
- Azokako, sasoikako edo antzeko pertsonen kasuan komeni izango litzateke zera egitea, joan ez izanaren egun-frogagiria aurkezteaz gain: euren gain hartuko dute ikastetxean lan-trenask jasotzea joaten ez den egunetan. Baldintza horietakoren bat bete ezik, absentismotzat hartuko lirateke.
- Batzuetan ez da erabiltzen gizarte- eta hezkuntza-txostena erreminta gisa kasuak koordinatze aldera, telefonoz batik bat. Batzuek pentsatu ere egiten dute ikastetxeetako irakasle batzuek ez dakitela jokabideko protokoloa dagoela absentismoa eta deseskolatzea aurkituta, eta hori dela-medio proposatzen da horixe behin eta berriro hedatzea.
- Udal zerbitzu batzuek adierazten dute ezen absentismoko protokoloari jarraituz Oinarritzko Gizarte Zerbitzuei jakinarazten ez zaienean zerbitzu espezializatua edo fiskaltza, jakin gabe Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaritza, Fiskaltza edo beste erakunde batzuetatik egiten diren azken izapideen ondorioak.
- Beharrezkoa ere izango litzateke benetan euskarri idatziak ezartzea koordinaziorako gizarte zerbitzu eta ikastetxeen artean horietan arazoak aurkitzen dituztenean haurretan (garbitasunik eza, gurasoekiko mugarik eza...) adingabearentzat arrisku egoera eraginez gero.
- Garrantzitsua izango litzateke ikastetxe bakoitzean egotea gizarte-hezle bat kasuok aurrera eramateko xedez.
- Sendotu egin behar da lan zuzena nerabeekin, (kasu askotan, familiak ez dauka ezer egiterik), heziketa-lan ibilaldiak sartuz ikasle bakoitzaren egoera pertsonal eta akademikoari egokitzuz eta heziketa eskaintza hedatuz (tailerrak, etab.), “callejeo” deitzen dena saihesteko.
- Garrantzi handia ematen zaio ikastetxea topaketa, informazio eta hurbiltzeko gunea izateari gutxiengo etnikoko familiekin batera eta programak edukitzea helduentzat, hurreratze, elkar ezagutzea, premien irakurketa sustatuz, besteak beste.
- Lerro berean, agertzen da komeni dela programa espezifikoak sartzea, eskola motibazioa eragiteko gogoz ikasle zein familiei dagokielarik.

5.3. FORU ALDUNDIKO GIZARTE EKINTZA SAILEKO HAUR ZERBITZUAREN EKARPENAK: JOKAERA ABSENTISTAREN

ZIOAK

5.3.1. Jokaera absentistaren zio nagusiak eragin handiagoagatik ordenatuak Haur Zerbitzuen iritziaren arabera.

Hurrengo taulan ordenaturik daude ikasleen jokaera absentistaren zioak eragineko portzentajea handiagoagatik galde-sortari erantzun dioten Haur zerbitzuetan. “Profesionalen kop.” zutabean jasotzen da zenbatek balioetsi duten “Zioa” izenburupean agertzen diren enuntziatu batzuek edo bestek azaltzen dutela ikasleen jokaera absentista udalerrian. Eskuineko zutabean jasotzen da berriro zenbat Haur Zerbitzuek balioetsi duten aipatu zioak eragiten ziela ikasle absentisten erdiei baino gehiagori (2 puntuazioa) eta/edo guztiei (3 puntuazioa).

ZIOA	Profesionalen kop.	Ikasleen kopuru handi bati eragiten dio
1. Familiak gehiegi babesten ditu seme-alabak (gaixotasun edo molestiak justifikatzen ditu zio argirik gabe eta txosten medikorik gabe...)	14 (%100)	12 (%86)
2. Familiak ez dauzka ezarrita funtzionamenduko oinarritzko arau eta ohiturak.	14 (%100)	14 (%100)
3. Ikasleak motibazio urria dauka ikasketa eta/edo gauza akademikoak direla eta.	14 (%100)	14 (%100)
4. Familiak ez dauka hezkuntza onuratzat seme-alabentzat.	14 (%100)	10 (%71)
5. Familiak loturik bizi da zenbait ohiturari, eta horiexek oztopatzen dute Ikastetxera joatea (egun batzuetako ospakizunak, nebarreba txikiak zaintzea...)	14 (%100)	10 (%71)
6. Familiak ezintasuna agertzen du seme-alaben jokaera absentista bideratzeko	14 (%100)	12 (%86)
7. Aurreko prestakuntza akademiko txarra eta/edo ikaslearen oraingo emaitza akademiko txarrak	14 (%100)	12 (%86)
8. Ikastetxeak ez dauka behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko	14 (%100)	10 (%71)
9. Familia lan dela-eta lekualdatzen da (mahats-bilketa, azokak...)	14 (%100)	8 (%57)
10. Zailtasunak ikastetxean ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitzeko (Zailtasunak irakaskuntza banan-banan egiteko)	14 (%100)	11 (%79)
11. Ikaslearen berdinaren taldearen arau eta balioek absentismora daramate arrastaka.	14 (%100)	12 (%86)
12. Familiak “beste aukera bat” azaltzen du seme-alabak hezteko eskola-erakundetik kanpo	14 (%100)	9 (%64)

Haur zerbitzuko profesionalentzat taulan ageri diren formulazio guztiek ikasleen jokaera absentista dute zio. Baina gehien eragiten dietenek zerikusia dute gurasoen portaerekin, edo portaerako egiturazko pautarik ez dagoelako seme-alabak ongi garatu eta hezten laguntzeko, edo hezkuntza aintzat hartzen ez dutelako onura gisa edo baita loturik bizitzeagatik ere zenbait ohiturari, seme-alabak eskola-erakundera normalean joatea eragozten dutenei, hain zuzen. Garrantzitsua ere bada balioestea nola agertzen diren famili esparruan zailtasun batzuk agintea erabiltzeko seme-alaben hezkuntzan. Bestalde, hona hemen beste zio garrantzitsu bat: ere: ikasleetan dagoen motibazio urria gauza akademikoaren aurrean. Horri buruz, hala ere, baieztatu dezakegu galde-sorten azterketaren bidez DBHko etapako ikasleei dagokiela. Azkenik, azpimarratu beharra dago ikastetxe gutxik balioesten dutela jokaera

absentistaren zioak zerikusiren bat daukala zailtasunekin ikasleen ezaugarriei egokitzeko. .

5.3.2. Iritzi eta iradokizunak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza saileko Haur Zerbitzuetako teknikarien galde-sortetan jasoak

I Eranskinean jaso den ekarpen orriak ere badauka parte ireki bat, eta bertan iritzi eta iradokizunak eskatzen zaizkio Haur Hezkuntzako talde teknikoari eskola absentismoko arazoari buruz derrigorrezko hezkuntza etapan. Jarraian laburtu egiten dira halako iritziak:

- Eskola absentismoa gehienetan da adierazle haur edo nerabea dagoen desbabes egoerarena.
- Udal Gizarteko Zerbitzuen aldetik datorren kasuetan, non gertatzen baita deseskolatze egoera, adierazle bakar gisa etorri ondoren, gehienetan, familiaren esku-hartzeari buruz, askitzat jotzen da larritasuna, oinarrizko eskubide bat hausten baitu eta hortaz esku-hartzea egingo zen Haur Zerbitzuaren aldetik.
- Zaila izango da birbideratzea nerabeen errealitatea eta horrenbestez derrigorrezko irakaskuntzaren amaieratik hurbil dagoen adinarekin, non egoera absentista kronifikatua baitago.
- Baliabide edo galdera zehatzik ezak eta nerabeen desmotibazioak berak dute oztopatzen beraiek eskola esparruan berriro sartzea.
- Lehenago adierazi denarekin batera elkartuta, kasu batzuetan zeinetan gertatzen baita gurasoen ezintasuna batez ere nerabearen jokaera kontrolatzea, esku-hartzeko aukerak gero eta gutxiago dira.
- Familia baten barruan eskola absentismoa egoteak ohiko alderdi gisa eragiten du oinarrizko heziketa premia bat ez aitortzea eta beraz aldaketa mugitu ezina.
- Zenbait gutxiengo etnikori egoteak, adin zehatz bat bete ostean batik bat, baldintzatzen du esku hartzea euren parametro kulturaletan.
- Askotan ez da erabiltzen gizarte- eta hezkuntza-txostena absentismo edo deseskolatzeko eskola egoera sartuz Haur Zerbitzura bideratzeko txostenaren barruan, eta hortaz beharrezkoa izango litzateke bultzatzea.
- Beharrezkotzat jotzen da lankidetzan jarraitzea ikastetxeekin batera sentsibilizazio lanean, praktika onak lortzeko haur eta nerabeei laguntzeko zereginetan.

6. ONDORIOAK-SINTESIA

- Ikastetxeetan hutsegitea maiz egiteak kalte handia eragiten du ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoarentzat, eta hori dela eta geroan eragingo ditu baztertzeko eta marjinazioko egoerak gizaratean. Horrez gain, lau urteotan jaso izan diren datuek, praktika onen azterketa sakonak eta ikasketa alderatuek argi eta garbi erakutsi dute eskola absentismoa dabilela “aurkitzaile” on gisa beste arazo batzuei dagokielarik: tratu txarra, berdinen arteko erasoak, osasun arazoakde..., besteak beste.
- Ikastetxeetako zuzendaritzen ekarpenei dagokielarik, eskola absentismo eta deseskolatzearen kontrako jokabidea hobeto erabiltzeko xedez, hona hemen ondorio batzuk:
 - ✚ Ikastetxe gehienek balioesten du ikasleen jokaera absentistaren kausak familietan daukala oinarria:
 - Zuzendaritza taldeen %86,5ek uste dute familiek gehiegi babesten dituztela seme-alabak.
 - %83k agertzen dute ez dituztela ezarriak funtzionamenduko oinarritzko arau eta ohiturak.
 - %67k adierazten du familiek ez dutela balioesten hezkuntza onura gisa seme-alabentzat.
 - %50ek balioesten dute lotuak bizi direla ohitura batzuei, eta horiexek oztopatzen dutela ikastetxera joatea (egun batzuetako ospakizunak, nebarreba txikiagoak jagotea).
 - %48k ulertzen dute ez daukatela birzuzentzerik seme-alaben jokaera absentista.
 - %22k adierazten dute lanagatik lekualdatu egin behar dutela, eta horrexek eragozten du seme-alabek Ikastetxean irautea.
 - %10ek balioesten du familiek azaltzen dutela “beste aukera bat” seme-alaben hezkuntzarako eskola erakundetik kanpo.
 - ✚ Eskola absentismoaren beste zio garrantzitsu bat da ikasteko motibazio urria:
 - %70ek uste dute ikasleak daukala motibazio urria ikasketarako.
 - Zuzendaritza taldeen %42k balioesten dute jokaera absentistaren zioen artean aurreko prestakuntza txarra eta/edo oraingo emaitza akademiko txarrak.
 - ✚ Hainbat zio jokaera absentistari neurri apalagoan eragiten diotenak:
 - Zuzendaritza taldeen %30ek balioesten dute Ikastetxeek ez daukatela behar adina baliabide aurre egiteko jasaten duten eskola absentismoari.
 - %20k uste dute absentismoaren zio dela Ikastetxeak duen zailtasuna ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitze aldera.
 - Halaber, %13k adierazten dute berdinen taldearen arau eta balioek eraman dezaketela jokaera absentistetara.
 - ✚ Horrez gain Zuzendaritza taldeek behin eta berriro esaten dute

Erakundeetatik lan egin behar litzatekeela familiekin, Ikastetxeek bakarrik ezin dutela adierazten dutenez gero, eta Ikastetxeetan behin eta berriro esaten badute ere, lana familia absentistekin aukerak gainditzen ditu. Bereziki zaila dela diote familia ijitoekin esku hartzea; izan ere, uste dute ez da lortzen aldatzerik talde horretako zenbait kideren ikuspuntua seme-alabek Ikastetxera normalean joan beharrari dagokionez.

- Udal zerbitzuetako profesionalen iritziari dagokionez, jokaera absentistaren zioei buruz, hona hemen zenbait ondorio:

- ✚ Udal zerbitzurik gehienek ere balioesten dute jokaera absentistaren zioa dagoela ikasleen familietan:

- Udal zerbitzuen %100ek uste dute familiak gehiegi babesten dituela seme-alabak (gaixotasun edo molestiak justifikatzen dituzte zio argirik gabe eta txosten medikorik gabe...).
- %100ek uste dute familia lekualdatzen dela lanagatik (mahats-bilketa, azokak...).
- %99k balioesten dute lotuak bizi direla ohitura batzuei, eta horiexek oztopatzen dutela ikastetxera joatea (egun batzuetako ospakizunak, nebarreba txikiagoak jagotea).
- %86k adierazten du familiak ez daukela ezarrita funtzionamenduko oinarriko arau eta ohiturak. Gainera, familiak erakusten du ez daukela ezer egiterik seme-alabaren jokaera absentista berriro zuzentzeko.

- ✚ Eskola absentismoaren beste zio garrantzitsu bat ikasteko motibazio urria da

- Udal zerbitzuen %86k ulertzen du ikasleak motibazio urria daukela ikasketa eta/edo gauza akademikoengatik eta berdinaren taldearen norma eta balioek absentismora daramatela arrastaka.

- ✚ Hainbat zio ere eragiten diote jokaera absentistari:

- Udal zerbitzuen %89k uste dute ikastetxeek ez daukatela behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko. Zio horrek eragingo lieke ikasle absentisten %46ri.
- %86k uste dute ikastetxearen zailtasuna ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitze aldera baliteke oinarria izatea jokaera absentistari dagokionez. Hala eta guztiz ere, zio horrek eragin egingo lieke ikasle absentisten oso portzentaje txiki bati (%4).

- ✚ Gainera, Udal zerbitzuetako profesionalak adierazten dute zailtasuna gutxiengo etnikoei dagozkien adingabe absentistekin lan egiteko orduan, baita portaera hori zuzentzean ere derrigorrezko ikasketa amaieratik gertuko adina duten adingabeen kasuetan. Azkenik, azpimarratzen dute beharrezkoa dela elkarrizketa sendotzea eta lankidetzan jardutea erakunde eta zerbitzuen artean.

- Haur Zerbitzuko profesionalen iritziei dagokienez honako emaitza hauek jasotzen dira:

- ✚ Haur Zerbitzuko profesional guztiek uste dute jokaera absentistako zio garrantzitsu batek zerikusia daukala gurasoen portaerekin:

- Haur Zerbitzuko profesioek aztertutako kasuen %100ean familiak ez dauzka ezarrita funtzionamenduko oinarrizko arau eta ohiturak.
- %86an familiak gehiegi babesten ditu seme-alabak eta erakusten du ezintasuna berreroateko seme-alabaren jokaera absentista.
- %71n balioesten dute lotuak bizi direla ohitura batzuei, eta horiexek oztopatzen dutela ikastetxera joatea (egun batzuetako ospakizunak, nebarreba txikiagoak jagotea).

- ✚ Absentismoaren beste zio garrantzitsu bat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan batez ere, ikasteko motibazio urria da:

- Haur Zerbitzuko profesional guztiek uste dute ikasleek motibazio urria daukatela ikasketarako, eta zio horrek kasuen %100i eragiten die.
- Kasuen %86an jokaera absentistaren zioa da aurreko prestakuntza txarra eta/edo oraingo emaitza akademiko txarrak, baita absentismora erooten duten berdin taldeko arau eta balioak ere.

- ✚ Hainbat zio jokaera absentistan ere eragiten dutenak:

- Berrero, Haur Zerbitzuko profesional guztiek uste dute ikastetxearen zailtasuna ikasleen ezaugarriari egokitzeko egon daitekeela jokaera absentistaren oinarrian. Aldagai hori, beraren iritzia araberak, kasuen %79ri eragiten die.
- %71n uste dute ikastetxeek ez daukatela behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko.

- ✚ Haur zerbitzutik ere azaltzen dira zailtasunak esku hartzeko gurasoen ezintasun bat dagoenean seme-alabaren jokaera kontrolatzeko. Halaber, eta beste erakundeek egin duten bezalaxe, agertzen dute hainbat parametro kulturelek eragiten duten baldintza eta zailtasunak zenbait gutxiengo etnikotan jokaera absentista zuzentzeko xedez. Azkenik, agertzen da familiek ez dutela aintzat hartzen oinarrizko heziketa bat seme-alabentzat, eta hortxe dago aldatzeko gogorik eza.

- Arazo horrek 2007-2008 ikasturtean zehar Bizkaian duen dimentsioari dagokiolarik, hona hemen ondorioak:

- Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasleen kopurua 1.405 da orotara (Oinarrizko Hezkuntzako lagunen %1,5). Kopuru horrek gehiagotzea adierazi du (299 kasu) joan den ikasturtekoaren aldean. Alabaina, ikasturteon zehar absentismoaren agerpenik larrienak ere gutxiagotu dira Ikastetxe publikoetan.

- Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen %2,2k eta DBHkoen %3,4k portaera absentista izan dute.
 - Ikastetxe pribatu itunduetan portaera hori izan duten ikasleak %0,3 da Lehen Hezkuntzan eta %0,8 DBHn.
 - Portaera absentista metatua ikasturtean zehar Lehen Hezkuntzan aztertuz gero, portzentajerik handiena %25eko tartean dago. Hau da, absentisten %80,4k galdutako eskola egunek Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzan eta %84,6k Ikastetxe Pribatu itunduetakoetan ikasturtean zehar ez dute gainditzen bakoitzeko urteko eskola denboraldiko guztien %25.
 - DBHn, absentismoko portzentajerik handiena ere –%66,1 Ikastetxe publikoetan eta %59,9 Ikastetxe pribatu itunduetan, %25raino biltzen da tartean–, apalagoa da Lehen Hezkuntzako datuekin konparatuz gero. Aitzitik, nabari areagotzen da absentisten kopurua portzentajerik handiena daukan egun galduen tartean (%75 baino gehiago), eta %9,5 lortzen du Ikastetxe publikoetan eta %14,2 Ikastetxe pribatu itunduetan, deseskolatuen datuak eransten baldin baditugu.
 - “Absentismo zuzendu”ari dagokionez, erregistrorik ez egote gisa ulertuta apiril, maiatz eta ekainean zehar gutxienez, Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten %47,1 izan da eta DBHko %48; eta Ikastetxe pribatu itunduetan %48,4 Lehenean eta DBHko %39. Azken datuok jartzen gaituzte arazoaren dimentsio zehatzago batean. Hartara, el absentismorik larrienak –ikasturte osoan zehar dirau tinko– Lehen Hezkuntzako 354 ikasleri eragiten die (%0,6) eta DBHko 378ri (%1,05). Orotara Oinarrizko Hezkuntzako 732 ikasle (%0,8).
 - Ikasle deseskolatuei dagokienez, ikastetxe publikoetan %0,03 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,1 DBHn. Ikastetxe pribatu itunduetan deseskolatzea %0,007 izan da Lehen Hezkuntzan, eta DBHn %0,04.
 - Haur Hezkuntzan ikastetxe publikoetako ikasleen %1,8k portaera absentista izan dute, eta %0,2k Ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta deseskolatzea handiagoa da ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan %2,2 eta DBHn %3,5) Ikastetxe pribatu itunduetan baino; Lehen Hezkuntzan %0,3 daukate eta DBHn %0,8. Ezberdintasun honek erlazio estua dauka jende baztertuaren portzentajearekin arlo ekonomiko, familiar, sozial edo kulturalari dagokiolarik, ikastetxe batean edo bestean eskolatzeko orduan; oro har handiagoa da sare publikoetan, eta nolana ere ezberdina bakoitza kokatuta dagoen eskualdearen arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira banatzen era proportzionalean Lurralde osoan, baizik eta bi eskualdek (Ikuskaritzako 3 eta 4. eskualdeak) ikasle horien %94,3 hartzen dute beretzat. Bestalde, aipagarria da

ikasturteon gutxiagotu egin direla portzentajeen absentismoko kasu larriak, ikasturte osoan zehar dirautenak, gehiago Ikastetxe publikoetan itunpeko pribatuetan baino.

- Absentismo eta/edo deseskolatze arazoak direla eta kalteturik geratu diren ikastetxeak ikastetxe publikoen %48 izan dira eta pribatu itunduen %32. Portzentajea eskaintzeko asmoz 6 ikasle absentista edo gehiagoko irizpidea baldin badarabilgu ikastetxe bakoitzean, orduan ikastetxe kaltetuen portzentajea ikastetxe publikoen %19,8 litzateke eta peribatu itunduen %10,2 Ikastetxeok absentismo eta deseskolatzeko mapa zehatz bat marrazten dute eskualdeka:
 - Bizkaian kalterik gehien jaso duten eskualdeak, lehenago esan den legez, Ikuskaritzako 3 eta 4. eskualdeei dagozkienak dira. Zehatzago Bilboko zenbait auzuneri dagozkie (Otxarkoaga, Casco Viejo, San Francisco, Zabala...) eta Basauri, Barakaldo, Portugalete eta Sestao udalerrietako auzotegi batzuei.
- Badago irizpide are zorrotzago bat –ikastetxe kaltetuzat jotzeko ikasleen %20 edo gehiago portaera absentista eta/edo deseskolatuarekin–, egoera honetan zortzi Ikastetxe publiko eta Ikastetxe pribatu itundu bat jartzera eramaten gaituena.
- Kasu aurkitu eta era positiboan ez zuzenduen %42,9 Ikastetxeetatik bideratu dira Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara edo beste Udal zerbitzu batzuetara. %0,8 Foru Aldundiaren Haur Zerbitzu espezializatueta izan da eta %2,9 Ministerio Fisalera (Adingabeen Fiskaltza).
- Azkenik, zera behar da agertu: arazoaren dimentsioa definitzeko xedez erabilitako portzentajeak Hezkuntza Sistemaren zatitxo bati dagozkioen arren, ez ditugu gauza batzuk ahantzi beha:
 - 1º Kaltetuak –kopuru absolututan 1.405– 6 eta 16 urte bitarteko ikasleak dira, eta euren derrigorrezko eskolatzeta da gizarteak ezarritako mekanismoa, hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera, eta ez da benetan gauzatzen, egia esan.
 - 2º Prebentzioz eta era sintomatikoan ez jokatzek, familien gainean esku hartu behar duten Botere Publikoen erantzukizuna bete ez izana adierazteaz gainera, berekin ere badakar geroko gizarte bazterketa eragiten duen kausatariko bat ez ezabatzea.

7. PROPOSAMENAK

Batzordeak, sartuta daude profesionalen ekarpenak, gure inguru hurbilean eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak eta prozesuaren balioespina bera kontuan edukita, deritzo beharrezkoa dela segidan datozen hobetzeko proposamenak aurkeztea, eta ia guztiak joan den ikasturteko txostenean ere azaldu zirelakoan daude.

- Ikastetxeei eskatzen zaie, lehenago bezalaxe, euren ahaleginari eustea, eta ahal izanez gero, gauza bera baita areagotzea ere, bertaratze kontrol sakona burutze aldera. Kontrol hori ez da jo behar jokabide iraingarritzat lehen urratzat baizik balizko arrisku akademiko pertsonal edo sozialeko egoera batean jokatzeko ikasle kaltetuentzat. Halaber, sartuta dauden guztiei eskatzen zaie (irakaskuntza taldeak, gizarte-taldeak eta zerbitzu espezializatuak) kasua aurkitu eta/edo bideratu ostean berehalako esku-hartze koordinatua.
- Arazo hori zabala dela eta, (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria bete gabeko oinarritzko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi bati ekin beharko litzaioke sartuta dauden Erakunde guztien aldetik, eta horrexek kontenplatu beharko litzuzke eraginik handiena jasan duten eskualde eta Ikastetxeak alde batetik, eta kasuak banaka aztertu bestetik. Edozein egoeratan lehentasuna eman behar zaie adinik txikienak dituztenei eta Lehen Hezkuntza etapatik Derrigorrezko Bigarrenera iragatean, eta esku-hartzea eta segimendua bermatuak egongo dira harik eta sartuta dauden haur eta nerabeen eskola egoera normaldu arte.
- Aurreko atalean azaldutako esku-hartze diferentzialaren barruan, zera proposatzen da: 1) heziketako esku-hartzea ikasle absentisten familiekin Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan. Heziketa horretan parte hartzea loturik egon liteke sartzeko hitzarmenei, familiek izenpetuak edukiz gero; 2) DBHko ikasleak izanez gero, proposamena da babesten dituzten Ikastetxeei eskaintzeko aukera zabalagoak irakaskuntza normalizatua baino; eta 3) datorren ikasturteko datuak jasotzean genero aldagaia aztertu beharko litzateke.
- “Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa”n sartuta dauden hiru Erakundeek martxan jarriko dituzte sentsibilizazioko kanpainak jendeari zuzenduak oro har eta, zehazki, derrigorrezko eskolatzeko adineko seme-alabak dituzten familiei; kanpainotan islatzen da hezkuntzak berekin daukan eraldatzeko eta gizarte-baztertzearen aurkako aukera handia. Kanpainok ikasturte bakoitzaren hasieran behar lirateke egin.
- Aurten ere, Batzordeak berriro balioesten ditu oso era positiboan burutu diren ahaleginak eragile eta Erakunde bakoitzaren aldetik, komunikazioa eta esku-hartze koordinatua hobetzeko programaren aplikazioko bosgarren ikasturte honetan zehar. Ikastetxe guztiei absentismo eta deseskolatzeko hiruhileko sistesia aurkeztea eskatu izanari esker hobetu egin da kontrola datuak jasotzeko orduan. Alabaina, oraindik ere azpimarratu behar da epeak errespetatzea programaren barruan dauden esku-hartzeetan.
- Beharrezkoa izango litzateke Adingabeen Fiskaltzarekin eta/edo dagokion

- instantzia judizialarekin harremanetan jarraitzea. Aurtengo topaketetan jakinarziko dira txosten honetako datuak eta jarraitu egingo da aztertzen elkarrekin batera Fiskaltzara edo dagokion instantzia judizialera bideratutako kasu bakoitzaren banako eboluzioa.
- EAEko Administrazio publikoen jokatzeko printzipioei erantzun nahian haur eta nerabeei laguntzeko eskumenak erabiltzeko orduan, otsailaren 18ko 3/2005 Legean jasota, Haur eta Nerabeak Lagundu eta Babesteko eta, zehatzago, lege horren 5, 7 eta 41 artikuluetan adierazten den kontuan, proposatzen da lankidetzako hitzarmenak izenpetzea Hezkuntza Sailaren eta Udalen artean absentismoko erarik larrienak dauzkaten auzoak eta udalerrriak kontuan edukita. Hitzarmenok batera giza baliabide espezifikoak joango lirateke arazo hori gehien jasaten duten eskualde eta Ikastetxeetako gizarte-eta Hezkuntza-dimenzioa batera lantzeko xedez. Hitzarmenok izenpetzen ez diren bitartean, datorren urtean esperientzia gisa bi zentro aukeratu litezke, ikasle absentista asko dutenak, bata Lehen Hezkuntzako eta bestea DBHkoa, eta bertan Hezkuntza Ikuskaria izango dute buru, eta sareko lana jarriko da hezkuntza taldearen aldetik (irakasleak, laguntza zerbitzua eta Ikuskaritza) eta sozialetik (bitartekariak, gizarte-langileak eta zerbitzu espezializatuak).
 - Berriro ere, Batzorde honek azpimarratu behar du Lurralde Ordezkaritzaren aldetik dagozkion gauzetan, edo Hezkuntza Saileko beste erakunde batzuen aldetik, zehaztu egin behar direla irizpideak ikasleen artean absentismo indize handia daukaten ikastetxeak irizpide diferentziazalez tratatu daitezten “Lanpostuen Zerrenda”ri, ikastetxe horietako pertsonala izendatzeari, heziketako proposamenei, laguntza ekonomikoari... dagokionez. Horrela aurreikusten du maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzakoak, eta 81.4 artikuluan zera jasotzen du: *“las Administraciones educativas dotarán a los centros públicos y privados concertados de los recursos humanos y materiales necesarios para compensar la situación de los alumnos que tengan especiales dificultades para alcanzar los objetivos de la educación obligatoria, debido a sus condiciones sociales.* Berdin jasotzen du Euskal Eskola Publikoko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, eta 10 artikulua xedatzen du berdintasun printzipioa eta dauden diskriminazio egoerak kentzea eraginkor egite aldera, EAEko urteroko Aurrekontu Nagusietan jasoko dira konpentsazioko fondo batean sartu beharreko kreditoak baliabideak hobeto banatu ahal izateko. Halako irizpide diferentziazalek lotuak egon behar dute egitasmo eta/edo planak gauzatzeari ikasleei laguntze aldera. Zehatzago eta, lehen urratsa legez, aintzat hartuko dira batez ere absentismo indizea %20tik gorakoa daukaten ikastetxeak; egoera horretan daude zortzi Ikastetxe publiko eta itunpeko Ikastetxe pribatu bat.
 - Bizkaiko Foru Aldunditik eta dagozkien Udaletatik, eskumenak banatzean bakoitzari dagokion kontuan esku-hartze sozial arloan, aztertu beharko da

jokabide neurri diferentzialak proposatzeko era absentsismo eta deseskolatze arazorik gehien duten eskualdeetan (Hezkuntza Ikuskaritzako 3 eta 4 eskualdeak, hain zuzen), horri buruz Hezkuntza Administrazioak garatuko dituen jokabideei kalterik egin gabe.

8. ESKER ONAK

Hobekuntzako osagai asko aurkitzen diren arren –horiek jaso dira txostenean zehar eta eskola absentismoko arazoa ez da oroz konpondu–, esan beharra dago segimenduko batzordeak Programa aplikatzeko lau ikasturteotan zehar aukera izan du ahalegin asko ikusteko profesionalek eta Erakundeek gauzatuak praktikan jartzeko unean. Azpimarratu behar da bereziki absentismoa eta deseskolatzea aurkitzeko zereginetan gauzatu den lan handia, jasotako informazioa erabili izana, arazoari era sektorialean heltzeko ekimenak martxan jartzea eta eraginkortzat jotzen ziren irtenbideei idealak ez ziren egoeretan eustea. Halaber, nabarmentzen dira emandako urrats garrantzitsuak sartuta dauden Erakunde eta profesionalen koordinazioetan. Horri orori esker argi utz daiteke ikasturtero eta gardentasun handiagoz absentismo eta deseskolatzearen dimentsioa geure Lurraldon, eta gero eta gehiago dira laguntza jasotzen duten ikasleen portzentajea; hainbat esku-hartze mota daude laguntzeko xedez eta, edozelan ere, nabarmen murrizten ari da eskola porrota eta gizarte bazterketa sortzen dituen arazo handi hori.

Hementxetik bihoa gure esker ona.

Bilbon, 2009ko otsailaren 12an

SEGIMENDUKO BATZORDEA

Hezkuntza Konpentsatzaileko Partzuergoa

- Mikel Ubillos

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

:

- Inmaculada Cereceda
- Almudena Gabiola
- Candi Hernández

Bizkaiko Foru Aldudia

- Alazne Madinabeitia

EUDEL

- Dorleta Goiburu

- Manuela González
- Iñaki Iglesias
- Javier Ruiz

ERANSKINAK

I ERANSKINA

Nortzuen iritziak jaso diren:

- **Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak**
- **OGZ eta beste Udal Zerbitzu batzuk**
- **BFAko Umeen Zerbitzua**

ZUZENDARITZA TALDEEN IRITZIA

GURE IKASLEEN JOKAERA ABSENTISTAREN ZIOAK

Jokaera absentistaren zio posibleen hurrengo zerrendak kontuari buruzko hainbat ikerketa eta azterlanetan lortu diren ondorioak izan ditu oinarri.

Seinalatzea eskatzen dizugu zure ustez haietariko zeintzuk dagozkion arazo horren egoerari zure ikastetxean.

Baliteke zure Ikastetxeko ikasleen jokaera absentistak zio bat baino gehiago edukitzea; hortaz, bat baino gehiago seinalatu dezakezu, **BAI** dagokion zio bakoitzean jarritz. Bestela, **EZ** jarri. Gainera, baliteke seinalatuak dauden zio guztiek eragin berbera ez edukitzea ikasleetan. Beraz, neurtu ezazu 1etik 3ra puntuazioaz aukeratutako zio bakoitza, horrek eragindako ikasleen kopuruaren arabera. (1 = ikasle gutxiri eragiten die; 2 = ikasle absentisten erdiei eragiten die ia-ia; 3 = askori eragiten die, ia denei)

ZIOA	BAI	EZ	1	2	3
1.- Ikasleak motibazio urria dauka ikasketa eta/edo gauza akademikoengatik					
2.- Ikaslearen berdinen taldearen arau eta balioek absentismora daramate arrastaka					
3.- Ikaslearen aurreko prestakuntza akademiko txarra eta/edo oraingo emaitza akademiko txarrak					
4.- Familiak ez dauka hezkuntza onuratzat seme-alabentzat					
5.- Familiak ez dauka ezarrita funtzionamenduko arau eta ohiturak (berandu doaz ohera ↔ ez dira goizean itzartzen ...) Batzuetan badago harreman gatazkatsurik familian, toxikomania eta halako arazorik					

6.- Familia lotua bizi da ohitura batzuei, eta horiexek dira oztopo Ikastetxera joateko (egun batzuetako ospakizunak, neba-arreba txikiak jagotea...)					
7.- Familia lekualdatu egiten da lana dela eta (mahats-bilketa, azokak...)					
8.- Familiak gehiegi babesten ditu seme-alabak (gaixotasun edo molestiak justifikatzen ditu zio argirik gabe eta txosten medikorik gabe...)					
9.- Familiak ezintasuna agertzen du seme-alaben jokaera absentista zuzentzeko					
10.- Familiak “beste aukera bat” azaltzen du seme-alaben hezkuntzarako eskola erakundetik kanpo					
11.- Zailtasunak ikastetxean ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitze aldera (zailtasunak banan-banan irakasteko).					
12.- Ikastetxeak ez dauka behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko.					
Beste ziorik (azaldu beharra):					

BESTE IRITZI, IRADOKIZUNIK... AZALDU NAHI IZANEZ GERO:

OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUEN ETA BESTE UDAK ZERBITZU BATZUEN IRITZI

GURE IKASLEEN JOKAERA ABSENTISTAREN ZIOAK

Jokaera absentistaren zio posibleen hurrengo zerrendak kontuari buruzko hainbat ikerketa eta azterlanetan lortu diren ondorioak izan ditu oinarri.

Seinalatzea eskatzen dizugu zure ustez haietariko zeintzuk dagozkion arazo horren egoerari zure Udalerrian.

Baliteke zure Udalerrian ikasleen jokaera absentistak zio bat baino gehiago edukitzea; hortaz, bat baino gehiago seinalatu dezakezu, **BAI** dagokion zio bakoitzean jarritz. Bestela, **EZ** jarri. Gainera, baliteke seinalatuak dauden zio guztiek eragin berbera ez edukitzea ikasleetan. Beraz, neurtu ezazu 1etik 3ra puntuazioaz aukeratutako zio bakoitza, horrek eragindako ikasleen kopuruaren arabera. (1 = ikasle gutxiri eragiten die; 2 = ikasle absentisten erdiei eragiten die ia-ia; 3 = askori eragiten die, ia denei)

ZIOA	BAI	EZ	1	2	3
1.- Ikasleak motibazio urria dauka ikasketa eta/edo gauza akademikoengatik					
2.- Ikaslearen berdinen taldearen arau eta balioek absentismora daramate arrastaka					
3.- Ikaslearen aurreko prestakuntza akademiko txarra eta/edo oraingo emaitza akademiko txarrak					
4.- Familiak ez dauka hezkuntza onuratzat seme-alabentzat					
5.- Familiak ez dauzka ezarrita funtzionamenduko arau eta ohiturak (berandu doaz ohera ↔ ez dira goizean itzartzen ...) Batzuetan badago harreman gatazkatsurik familian, toxikomania eta halako arazorik					

6.- Familia lotua bizi da ohitura batzuei, eta horiexek dira oztopo Ikastetxera joateko (egun batzuetako ospakizunak, neba-arreba txikiak jagotea...)					
7.- Familia lekualdatu egiten da lana dela eta (mahats-bilketa, azokak...)					
8.- Familiak gehiegi babesten ditu seme-alabak (gaixotasun edo molestiak justifikatzen ditu zio argirik gabe eta txosten medikorik gabe...)					
9.- Familiak ezintasuna agertzen du seme-alaben jokaera absentista zuzentzeko					
10.- Familiak “beste aukera bat” azaltzen du seme-alaben hezkuntzarako eskola erakundetik kanpo					
11.- Zailtasunak ikastetxean ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitze aldera (zailtasunak banan-banan irakasteko).					
12.- Ikastetxeak ez dauka behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko.					
Beste ziorik (azaldu beharra):					

BESTE IRITZI, IRADOKIZUNIK... AZALDU NAHI IZANEZ GERO:

FORU ALDUNDIAREN GIZARTE-EKINTZA SAILEKO UMEEN ZERBITZUAREN IRITZIA

GURE IKASLEEN JOKAERA ABSENTISTAREN ZIOAK

Jokaera absentistaren zio posibleen hurrengo zerrendak kontuari buruzko hainbat ikerketa eta azterlanetan lortu diren ondorioak izan ditu oinarri.

Seinalatzea eskatzen dizugu zure ustez haietariko zeintzuk dagozkion arazo horren goerari zure zerbitzuan.

Baliteke zure zerbitzuan ikasleen jokaera absentistak zio bat baino gehiago edukitzea; hortaz, bat baino gehiago seinalatu dezakezu, **BAI** dagokion zio bakoitzean jarritz. Bestela, **EZ** jarri. Gainera, baliteke seinalatuak dauden zio guztiek eragin berbera ez edukitzea ikasleetan. Beraz, neurtu ezazu 1etik 3ra puntuazioaz aukeratutako zio bakoitza, horrek eragindako ikasleen kopuruaren arabera. (1 = ikasle gutxiri eragiten die; 2 = ikasle absentisten erdiei eragiten die ia-ia; 3 = askori eragiten die, ia denei)

ZIOA	BAI	EZ	1	2	3
1.- Ikasleak motibazio urria dauka ikasketa eta/edo gauza akademikoengatik					
2.- Ikaslearen berdinen taldearen arau eta balioek absentismora daramate arrastaka					
3.- Ikaslearen aurreko prestakuntza akademiko txarra eta/edo oraingo emaitza akademiko txarrak					
4.- Familiak ez dauka hezkuntza onuratzat seme-alabentzat					
5.- Familiak ez dauzka ezarrita funtzionamenduko arau eta ohiturak (berandu doaz ohera ↔ ez dira goizean itzartzen ...) Batzuetan badago harreman gatazkatsurik familian, toxikomania eta halako arazorik					
6.- Familia lotua bizi da ohitura batzuei, eta horiexek dira oztopo Ikastetxera joateko (egun batzuetako ospakizunak, neba-arreba txikiak jagotea...)					
7.- Familia lekualdatu egiten da lana dela eta (mahats-bilketa, azokak...)					
8.- Familiak gehiegi babesten ditu seme-alabak (gaixotasun edo molestiak justifikatzen ditu zio argirik gabe eta txosten medikorik gabe...)					
9.- Familiak ezintasuna agertzen du seme-alaben jokaera absentista zuzentzeko					
10.- Familiak "beste aukera bat" azaltzen du seme-alaben hezkuntzarako eskola erakundetik kanpo					
11.- Zailtasunak ikastetxean ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitze aldera (zailtasunak banan-banan irakasteko).					

12.- Ikastetxeak ez dauka behar adina baliabide jasaten duen absentismoari aurre egiteko.					
Beste ziorik (azaldu beharra):					

BESTE IRITZI, IRADOKIZUNIK... AZALDU NAHI IZANEZ GERO:
